27-05-2017

1go EGUNA

IONDEGORTA, ALDAMIÑAPE (Santutxuko Mendi Taldearen aterpea), MAIRULEGORRETAKO KOBA, GORBEIA 1482, eta ALDAMIN 1373

Iondegortako aparkalekutik (730m), porlanezko bide bat hartuz, Agiñalde izeneko zelaira helduko gara (900m 30´). Hagin asko daude inguru honetan, horietariko batzuk oso handiak dira eta Euskadiko aparteko zuhaitzen zerrendan daude. Bertatik hegoalderantz joko dugu Aldamiñapen dagoen aterpera heltzeko. Bertan utziko ditugu behar ez ditugun gauzak (lo zakua eta abar) . Ekialdera jo behar dugu, altuera pixkat galtzen, gero pagadia zeharkatuz Mairulegorretako kobetara helduko gara.

Leizea bisitatu ondoren pixka bat jaitsiko gara eta handik gutxira aldapa gogor bat igotzeari ekingo diogu. Ibilbide tarte honetan adi egon behar da ez galtzeko. Gero ,basoa atzean utzita bidea nabarmenagoa da eta gaindorra jarraituz, Gorbeiako tontorrera helduko gara. Tontorretik Aldamiñosteko aldera jaitsiko gara(I), eta lepotik oso gertu dagoen, Aldamin gailurrera igoko gara. Lepora buelta eta gero Ipar ekialderantz jaitsiko gara, eta dugu Dulau pasua zeharkatuz aterpera helduko gara.

2. EGUNA

ALDAMIÑAPE (Santutxuko Mendi Taldeko aterpea), GATZARRIETA 1182, ARABATXA 1158, GOROSTETA 1259, eta LEKANDA 1302

Aterpetik atera bezain laster Arrabara eramango gaituen bidea hartuko dugu. Gatzarrieta tontorrera igoko gara eta bertatik mendilerro karstikotik jarraituz beste tontor pare bat kateatu ditugu (Arabatxa eta Gorosteta). Gorostetako tontorretik Arrabara jaitsiko gara eta behin zelaia zeharkatuta karstean sartuko gara Lekandara igotzeko. Buelta Arrabako zelaian barrena egingo dugu zuzen,eta Aldamiñapeko zelaietara jaitsiko gara igotzeko erabili dugun bide beretik. Aterpean gure gauzak jaso eta Iondegortara bueltatzeko bidea Aginaldetik pasa barik egino dugu .

GPSarako Ibilbidearen tracka-> Gorbeia-M.gpx

Compártelo:

Click to share on WhatsApp (Opens in new window)

Click to share on Telegram (Opens in new window)

Click to share on Facebook (Opens in new window)

Click to share on X (Opens in new window)

Click to email a link to a friend (Opens in new window)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota	Salida circular fin de semana a pie
Kokapena	Gorbeiako parke naturala
Metatutako desnibela	1go eguna: +1000/ - 700 2. eguna: +700/ -1000
Luzera	1go eguna: 10,8 km 2. eguna:13,4 km
Jardueraren iraupenaren aurreikuspena	1go eguna: 4 ordu inguru 2. eguna: 6 ordu inguru

Elkartzeko tokia eta ordua

Maiatzak 27 larunbata. Gailurrako egoitza (Trauko 27) goizeko 9:00etan.

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Zeanuri. Lanbreabe auzoa. Iondegortako parkinga.

Irteerarako izena emateko azken eguna

25-05-2017

Jakin beharreko kontu teknikoak

Parte-hartzailek jakin behar izango dute mendi-mapa bat irakurtzen eta fitxan deskribatutako ibilbidea jarraitzen.

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Prestakuntza fisiko on bat beharrezkoa da, ibilbidearen zailtasuna eta iraupenera aurre egin ahal izateko

Material tekniko beharrezkoa

Nahitaezkoa: - Eguzkitarako krema. - Eguzkitarako betaurrekoak. - Kapela - Txubaskeroa. - Lo zakua. - Frontala. - Mendiko botak. Aholkugarriak: - Zapatilak (aterpe barruan egoteko) - Makilak. - Kantinplora 1, 5 litro. - Belarritarako tapoiak. Garrantzitsua: - Bi egunetarako janaria eraman behar da.

Bestelako oharrak

Aterpean gaua pasatzeko 7 euro ordaindu beharko da. Apuntatzen den jendearen arabera zenbat kotxe partikular eramango ditugun adostuko dugu.

Argibide gehiago

txaberepelde@gmail.com